

---

# **Diziplina- eta berme-kodea**

# Atarikoa

Kode honen xedea da alderdi politikoak 2022ko urtarrilaren 22an egindako III. Kongresuan onartutako Sorturen Estatutuen 11. artikuluan aipatzen den diziplina-araubidea garatzea. Hurrenez hurren 2013ko otsailaren 23an eta 2017ko urtarrilaren 21ean egin ziren Sorturen I. Kongresuan (Sorrera kongresua) eta II. Kongresuan onartutako estatutueta jasota geratu zen diziplina-araubidea testu bereizi batean garatzearen beharra. Han ezarri ziren oinarritzko printzipio eta edukia osatu eta egokitu egin dira araudi berri hau osatzeko.

Kode honetan jasotako diziplina-araubidearen helburua da bi printzipio hauek uztartzea eta bateragarri egitea: Estatutueta sortzailei aitortzen zaizkien eskubideak errespetatzea, eta, horrekin batera, legezotasunaren, inpartzialtasunaren, kontraesanaren, defentsaren, errugabetasun-presuntzioaren eta proportzionaltasunaren printzipioetan oinarritutako prozedura bermatzea, alderdi politikoaren barne-funtzionamendu demokratikoa oinarri hartuta.

Kodearen egitura honako hau da: bi titulu, xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

I. tituluan diziplinazko arau-haustetzat jotzen diren jokabideak jasotzen dira, hone-la sailkatuta: oso larriak, larriak eta arinak. Era berean, jarri ahal diren zigorrak eta haien mailaketa jasotzen dira. Zigorren preskripzioa, diziplina-erantzukizunaren azkentzea eta espedientearen iraungitzea ere arautzen dira. Azkenik, zigortutako sortzaileen eskubideak leheneratzeko aukera jasotzen da.

II. titulua zigor-espedienteari buruzkoa da. Alderdiko organoen edo afiliatu batzuen erabakiek edo jardunek Estatutueta jasotako eskubideak urratu ez ditzaten afiliatu guztiei bermatu behar zaizkien printzipioak eta babes arautzen dituen tresna gisa finkatzen da zigor-prozedura. Horretarako, zehatz-mehatz arautzen dira espedientearen izapidetzea, errekursoak eta kautelazko neurriak.

Kodean arreta berezia eskaintzen zaie ustelkeria-delituekin eta indarkeria matxista delituekin lotutako jokabideengatik hasitako diziplina-espedientei; era berean, Indarkeria Matxista Kasuak Kudeatzeko Barne Protokoloarekiko erregulazio koherentea eta harmonikoa egiten saiatu gara, eta protokolo hori aplikatzeko prozedura, kode hau onartzearekin batera eguneratuko da, 2024ko ekainaren 22an egindako Sorturen VII. Nazio Konferentzian.

# I. titulua. Diziplina-araubidea

## I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua.

1. Kode hau Sortu alderdi politikoko sortzaile guztiei aplikatuko zaie.
2. Diziplina-gaietan eskumenak dituzten alderdi politikoko organoek Sorturen Estatutuetan eta Kode honetan ezarritakora egokituko dituzte beren jarduera guztiak.

### 2. artikulua. Diziplina-araubidearen oinarritzko printzipioak.

1. Sorturen diziplina-araubidearen helburua da gertatzen diren diziplinazko arau-hauste guztiak jasotzea eta dagozkion prozedurak izapidetzea eta ebaztea Estatutuetan eta Kode honetan ezarritakoaren arabera.
2. Prozedura izapidetzean, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean eta Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean jasotako printzipio hauek errespetatuko dira: legezketasuna, inpartzialtasuna, kontraesana, defentsa, errugabetasun-presuntzioa eta proportzionaltasuna.

## II. KAPITULUA. DIZIPLINAZKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

m

### 3. artikulua. Definizioa eta motak.

1. Diziplinazko arau-haustetzat hartuko dira Estatutuetan eta Kode honetan tipifikatuta dauden eta edozein sortzailek nahita egiten dituen ekintzak edo ez-egiteak.
2. Diziplinazko arau-hausteak oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke.

### 4. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Arau-hauste oso larria egiten dute honako jokabide hauetakoren bat dutenek:

- a. Sorturen kode etikoa urratzea.
- b. Alderdiaren funtsak edo ondasunak norberaren onurarako baliatzea.
- c. Alderdiko organoetan karguren bat edukitzeagatik edo eginkizunen bat betetzeagatik ezagutzen duen informazio erreserbatua beste erakunde politiko batzuei edo hirugarren pertsoneri ematea.
- d. Alderdiaren batasun ideologiko, programatiko edo organizatiboaren aurka modu larrian eta behin eta berriz aritzea.
- e. Sorturen oinarri ideologikoetan eta Kongresuetako ebazpenetan jasotako aurkako printzipioak aldeztzea eta zabaltzea.

- f. Alderdiaren Programaren, Oinarrizko Dokumentuen edo organo eskudunen lerrokatze zehatzen aurkako ekintza politikoak egitea.
- g. Alderdian zatiketak eragitea helburu duten ideiak zabaltzea edo ekintzak egitea.
- h. Alderdiarekiko antagonikoak diren alderdi edo erakunde politikoek ekintza politikoa babestea edo bultzatzea, eta/edo eragile politikoekin nahiz herritarrekin konjurtzea alderdiaren edo haren organoen aurka.
- i. Indiziplina larriz jokatzea batzarrek eta Alderdiaren gainerako organoek hartutako erabakiei dagokienez.
- j. Alderdiaren ondasunak edo funtsak bidegabeki besterentzea edo bereganatzea.
- k. Esleitutako funtzio publikoak betetzean zintzotasun-faltak edo delituak egitea.
- l. Funtsik gabeko egitateetan oinarritutako salaketak aurkeztea Kode honetan aipatzen diren diziiplina-organoetan.
- m. Beste alderdi politiko baten edo beste hauteskunde-koalizio baten zerrendan joatea.
- n. Alderdi Politikoei buruzko 6/2002 Lege Organikoaren 9.3 artikuluan aurreikusitako jokabideren bat edo batzuk behin eta berriz egitea.
- o. Urtebeteko epean bi arau-hauste larri edo gehiago egiteagatik zigortua izatea.
- p. Indarkeria Matxistako Kasuak Kudeatzeko Barne Protokoloa aplikatuz 3. edo 4. mailako prozedura bati lotuta egotea.

## **5. artikulua. Arau-hauste larriak.**

Arau-hauste larria egiten dute honako jokabide hauetakoren bat dutenek:

- a. Alderdiko zuzendaritza-organoek emandako karguak betetzeari uko egitea, justifikatutako arrazoirik gabe.
- b. Indiziplinaz jokatzea batzarrek eta Alderdiaren gainerako organoek hartutako erabakiei dagokienez.
- c. Kuotak behin eta berriz ez ordaintzea, justifikatutako arrazoirik gabe.
- d. Buruzagien eta kargudun publikoen zintzotasunik eza, Estatutuekiko desbideratzeak edo eraginkortasun politikorik eza.
- e. Kargu publikoetan edo Alderdiko karguetan zintzotasun-faltak egitea.
- f. Urtebeteko epean bi arau-hauste arin edo gehiago egiteagatik zigortua izatea.
- g. Indarkeria Matxistako Kasuak Kudeatzeko Barne Protokoloa aplikatuz 2. mailako prozedura bati lotuta egotea.

## **6. artikulua. Arau-hauste arinak.**

Arau-hauste arina egiten dute honako jokabide hauetakoren bat dutenek:

- a. Alderdiak deitzen edo antolatzen dituen batzar eta bilera politikoetara nahiz zibikoetara behin eta berriz ez joatea.
- b. Esleitutako funtzioak edo karguak arduragabekeriaz edo utzikeriaz betetzea.
- c. Indarkeria Matxistako Kasuak Kudeatzeko Barne Protokoloa aplikatuz 1. mailako prozedura bati lotuta egotea.

## **7. artikulua. Zigorrak.**

Arau-haustek egiteagatik ezarri ahal izango diren zigorrak honako hauek izango dira:

- a. Ohartarazpena edo kargu-hartzea, neurri hori hartzen duen organoaren eremura mugatua.
  - b. Isuna.
  - c. Kargu organikoak eta publikoak betetzeko aldi baterako inhabilitazioa eta, hala badagokio, betetzen ari zen kargua edo karguak kentzea.
  - d. Alderdiko kide izaera aldi baterako kentzea.
  - e. Alderditik kanporatzea.
- c) eta d) ataletan aurreikusitako zigorrak ez dira elkarren baztertzailak izango.

51

## **III. KAPITULUA. ZIGORREN MAILAKETA ETA PRESKRIPZIOA**

### **8. artikulua. Zigorren mailaketa**

Aurreko artikuluetan aurreikusitako zigorrak mailakatu ahal izango dira, honako irizpide hauen arabera:

- a. Gertaeren larritasuna, errepikapena, Sorturen barneko eta kanpoko garrantzia eta, hala badagokio, sortzailearen erantzukizuna funtzio edo kargu publiko edo organikoak baldin baditu.
- b. Kargu publikoak edo organikoak betetzeko aldi baterako etendura- eta inhabilitazio-zigorrek arau-hauste larrietan eta oso larrietan ezarri ahal izango dira.
- c. Kargu publikoak edo organikoak betetzeko aldi baterako etendura- eta inhabilitazio-zigorren iraupena inoiz ez da izango hiru urtetik gorakoa.
- d. Kanporatze-zigorra arau-hauste larrietan eta oso larrietan ezarri ahal izango da.
- e. Kanporatze-zigorra honako kasu hauetan ezarriko da:
  - Indarkeria Matxista Kasuak Kudeatzeko Barne Protokoloko 2. edo 3. mailako prozeduretan exijitutako konpromisoak eta prozesua onartzen ez badira edo/eta betetzen ez badira. Baita prozedura horiek emaitzarik gabe bukatzen badira ere;

- Indarkeria Matxista Kasuak Kudeatzeko Barne Protokoloko 4. mailako prozeduraren aplikatze hutsagatik;
  - Indarkeria matxistako delitu batengatik epai irmoz kondenatua izateagatik, baldin eta Indarkeria Matxista Kasuak Kudeatzeko Barne Protokoloa arrakastaz aplikatu ez bada;
  - Ustelkeriarekin lotutako delitu batengatik epai irmoz kondenatua izateagatik;
  - Etendura- edo inhabilitazio-zigorra betetzen ari den bitartean zigor hori eragin duen jokabidea berriz gertatzen bada.
- f. Isuna 600 eurokoa izango da gutxienez, eta 15.000 eurokoa gehienez.

### **9. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa**

1. Aurreko artikuluetan aipatutako arau-hausteen preskripzioari dagokionez, hau izango da araudia:
  - a. Indarkeria Matxista Kasuak Kudeatzeko Barne Protokoloko 3. edo 4. mailako prozedura exijitzen duten arau-hausteak preskribaezinak izango dira.
  - b. Arau-hauste oso larriak lau urtera preskribatuko dira.
  - c. Arau-hauste larriak bi urtera preskribatuko dira.
  - d. Arau-hauste arinak sei hilabetera preskribatuko dira.
2. Epeak arau-haustea egiten den unetik aurrera hasiko dira zenbatzen. Preskripzio-epea eten egingo da ustezko arau-hauslearen aurkako diziiplina-espedientea hasten den unetik aurrera.

51

## **IV. KAPITULUA. DIZIPLINA-ERANTZUKIZUNAREN AZKENTZEA ETA ESPEDIENTEAREN IRAUNGITZEA**

### **10. artikulua. Azkentzea**

Diziiplina-erantzukizuna azkenduko da zigorra betetzean, hiltzean, arau-haustea preskribitzean edo sortzaile izaera galtzean.

### **11. artikulua. Iraungitzea**

1. Diziiplina-espediente bat hasi eta dagokion izapidegilea izendatu ondoren, espedientatuari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik bi hilabete baino gehiago geldirik baldin badago, ofizioz dekretatuko da espedientea iraungi dela, eta jarduketak artxibatu egingo dira.

Iraungitzea Nazio Idazkaritzak erabakiko du, era arrazoituan, eta interesdunari jakinaraziko zaio.

2. Diziiplina-espedientearen geldiarazpena izapidegileari egotzi ahal bazaio, Kode honetan aurreikusitako moduan eta formalitateekin zigortu ahal izango da.

Erantzukizun hori eskatzea Nazio Idazkaritzari dagokio.

## **V. KAPITULUA. ZIGORTUTAKO SORTZAILEEN ESKUBIDEAK LEHENERATZEA.**

### **12. artikulua.**

1. Zigorrari dagokion epea bete ondoren, zigortuak izan diren sortzaileek automatikoki berreskuratuko dituzte afiliatu gisa dituzten eskubide guztiak.
2. Kanporatze-zigorra ezarri bazaio, sei urte igaro ondoren sortzaileak Alderdian berriz sartzeko eskaera egin ahal izango du.

Horretarako, berariaz egin beharko du eskaera, eta Estatutuen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetu eta ebatziko da.

## II. titulua. Zigor-espedientea

### I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

#### 13. artikulua.

Diziplina-prozedura Kode honen 2. artikuluan aipatzen diren printzipio hauetan oinarrituko da: legezketasuna, inpartzialtasuna, kontraesana, defentsa, errugabetasun-presuntzioa eta proportzionaltasuna. Inola ere ezin izango da zigorrik ezarri dagokion prozedura izapidetu gabe.

#### 14. artikulua. Eskumena

Nazio Idazkaritzak du zigor-espedienteak izapidetzeko eta ebazteko eskumena. Eskumen hori Estatutuen 18.7. artikulua garatuz ezarri da.

### II. KAPITULUA. ESPEDIENTEAREN IZAPIDETZEA

#### 15. artikulua. Hasiera

1. Sortzaileen aurkako diziplina-espedienteak ofizioz hasiko dira Nazio Idazkaritzaren erabakiz, edo edozein sortzailek, kargudun publikok edo barne kargudunek horretarako eskaera arrazoitua eginda, edo Alderdiko organoren batek hala eskatuta.
2. Alderdiko organoetan jasotako salaketak edo eskaerak Nazio Idazkaritzari igorriko zaizkio, atzerapenik gabe eta gehienez ere 72 orduko epean.

∞

#### 16. artikulua. Izapidegilea izendatzea

1. Diziplina-espediente bat hasitakoan, Nazio Idazkaritzak izapidegile bat izendatuko du bere kideen artean. Kide horrek Kode honetan finkatutako eran izapidetuko du espedientea.
2. Espedientea izapidetuko duen kideak ezin izango du parte hartu Nazio Idazkaritzak hartu beharreko erabakien inguruko eztabaidetan eta bozketetan.

#### 17. artikulua. Lehen jarduketak.

1. Espedientea behar bezala izapidetze aldera, gertatutakoa ondo argitzeko eta tartean egon litezkeen sortzaileak zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen datu, aurrekari eta agiri guztiak bilduko ditu izapidegileak. Era berean, beharrezkotzat jotzen dituen izapide guztiak egin ahal izango ditu. Horretarako, Alderdiko afiliatu eta organo guztien laguntza eta lankidetzak ahalik eta handiena eskatu ahal izango du, eta nahitaezkoa izango da hori ematea.
2. Espediente bakar batean sortzaile bat baino gehiago inputatu ahal izango dira, baldin eta egitate berberak egin badituzte eta haien jokabidea diziplinazko arau-hauste gisa tipifikatuta badago.



### III. KAPITULUA. ABSTENTZIOA ETA ERREKUSAZIOA

#### 18. artikulua. Arrazoiak.

Izapidegileari honako arrazoi hauek aplikatuko zaizkio abstentziorako eta, hala bada-gokio, errekusaziorako:

- a. Diziplina-espeditentean edo espeditentatuarekin zerikusia izan dezakeen beste espeditente batean interes pertsonala edukitzea.
- b. Espeditentatuarekin ebatzi gabeko auziren bat edukitzea edozein epaitegi edo auzitegitan.
- c. Espeditentatuarekin laugarren mailako odol-ahaidetasuna edo bigarren mailako ezkontza-ahaidetasuna edukitzea.
- d. Espeditentatuarekin edonolako sozietate-harreman ekonomikoa edo harreman juridikoa edukitzea, une horretan nahiz iraganean.
- e. Espeditentatuarekin adiskidetasun estua edo ageriko etsaitasuna edukitzea.
- f. Espeditentatuari nola edo hala eragin dion prozedura judizial, administratibo edo diziplinazko batean peritu edo lekuko gisa parte hartu izana.
- g. Espeditentatuarekin zerbitzu- edo mendekotasun-harremanen bat edukitzea (une horretan nahiz iraganean), edo azken bost urteetan zerbitzu profesionalak edo bestelakoak eman izana.

#### 19. artikulua. Abstentzia.

Aurreko artikuluan aipatutako abstentzio-arrazoiren bat duen izapidegilea abstenitu egin beharko da, errekusatua izan arte itxaron gabe, eta Sortuko idazkari nagusiari jakinarazi beharko dio. Aurreko artikuluan jasotako abstentzio-kasuak gertatzen badira, idazkari nagusiak beste izapidegile bat izendatuko du.

#### 20. artikulua. Errekusazioa.

1. Espeditentearen izapidegilea nor izango den jakinarazten zaionean espeditentatuak jakiten baldin badu Kode honen 18. artikuluan jasotako kasuren batean sartuta dagoela, haren kontrako errekusazioa aurkeztu ahal izango du, hurrengo bost egunetan eta honako baldintza hauek betez:
  - a. Errekusazioa deskargu- edo alegazio-idazkia aurkeztu baino lehen formulatu beharko da, errekusazioaren arrazoiak eta zergatiak azalduz.
  - b. Kode honetan jasotako errekusazio-arrazoiak soilik onartuko dira, eta inola ere ez dute espeditentearen izapidetzea etengo.
  - c. Errekusazioa egin ondoren, errekusatuari helaraziko zaio, hamar eguneko epean egoki deritzona adieraz dezan. Ondoren, hamabost eguneko epean, Nazio Idazkaritzak erabakiko du errekusazioa onartu behar den ala ez.

- d. Erabaki horren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri. Hala ere, espedientatuak errekusazioa erreproduzitu ahal izango du auziaren funtsari buruz jar litzakeen errekurtsuetan.
2. Errekusazio-arrazioen erreprodukzioa ez da inola ere errekurtsu independente-tzat hartuko.

#### **IV. KAPITULUA. KARGU-ORRIA, ALEGAZIOAK, FROGAK ETA EBAZPEN-PROPOSAMENA.**

##### **21. artikulua. Kargu-orria. Alegazioak eta froga-proposamenak.**

1. Aurrekariak, txostenak eta frogak aztertu ondoren, izapidegileak espedientea artxibatzea proposatuko du edo, bestela, kargu-orria egingo du, ustez egindako arau-haustea tipifikatuz eta aplika litezkeen zigorrak proposatuz.
2. Kargu-orria espedientatuari helaraziko zaio, hamabost egun balioduneko epean erantzun diezaion. Epe horretan, egoki irizten dien frogak aurkeztu eta proposatu ahal izango ditu.  
Aurreikusitako epean alegaziorik aurkezten ez bada, kargu-orria bera ebazpen-proposamentzat hartu ahal izango da.
3. Kargu-orria argi eta zehatz idatziko da, egotzitako egitateak paragrafo banandu eta zenbakituetan jasoz.

##### **22. artikulua. Frogak egitea.**

1. Alegazioak egiteko eta frogak proposatzeko epea igarotakoan, izapidegileak beharrezkotzat jotzen dituen frogak egitea onartuko du. Beharrezkotzat jotzen ez dituenak edo desegokiak iruditzen zaizkionak ukatu ahal izango ditu, horren zergatiak azalduz. Era berean, ofizioz proposatu ahal izango ditu egokitzen jotzen dituen frogak.
2. Izapidegileak proposatutako eta egoki iriztitako frogak nahiz ofizioz erabakitakoak egiteko, alde zurretik horren berri emango zaio espedientatuari, froga horiek non, noiz eta zer ordutan egingo diren jakinaraziz. Frogak gehienez ere hamabost eguneko epean egin beharko dira.
3. Izapidegileak ukatzen dituen frogen aurka errekurtsua jarri ahal izango da Nazio Idazkaritzaren aurrean. Froga horien garrantzia zenbaterainokoa den azterturik, Nazio Idazkaritzak errekurtsuari buruzko ebazpen arrazoitua emango du, zazpi eguneko epean. Errekurtsua aurkeztuz gero, izapidegileak ebazpen-proposamenarako duen epea eten egingo da, Nazio Idazkaritzak bere ebazpena eman arte.
4. Eskatutako frogak Nazio Idazkaritzak ukatzen baditu, ondorengo errekurtsuetan espedientatuak berriz aurkeztu ahal izango du froga horiek egiteko eskaera.

##### **23. artikulua. Ebazpen-proposamena.**

1. Aurreikusitako frogak egin ondoren, izapidegileak ebazpen-proposamena eman-  
go du, hurrengo hamabost egun baliodunen barruan, eta Nazio Idazkaritzari bidaliko dizkio jarduketa guztiak, ebatz dezan.

Ebazpen proposamenean izapidegileak kontutan hartu ahal izango du espedientatuak egindakoa erreparatu edo konpontzeari begira izan duen jarrera, honakoa justifikatu beharko du.

2. Nazio Idazkaritzak jarduketa guztiak aztertuko ditu, eta, formazko akatsen bat ikusten badu, espedientea itzuliko dio izapidegileari, gehienez ere hamar eguneko epean zuzendu dezan eta berriro bidal diezaion.
3. Halaber, Nazio Idazkaritzak espedientea itzuli ahal izango dio izapidegileari ukatu diren baina espedientea ebazteko ezinbestekotzat jotzen dituen izapideak egin ditzan.
4. Izapide berriak egin ondoren, eta espedientea Nazio Idazkaritzari berriz bidali aurretik, izapide horiek erakutsiko zaizkio espedientatuari, hamar eguneko epean bere eskubideen arabera egoki deritzona alega dezan.

#### **24. artikulua. Izapideak artxibatzea.**

1. Izapideak egin ondoren izapidegileak ondorioztatzen badu espedientea eragin duten egitateak gertatu izanaren zantzu nahikorik ez dagoela, Nazio Idazkaritzari igorriko dizkio jarduketa guztiak, bere txostenarekin batera, dagokion ebazpena eman dezan.
2. Hala ere, Nazio Idazkaritzak uste badu nahikoa zantzu badaudela egotzitako arau-haustea egin dela egiaztatzeko, izapidegileari itzuliko dio espedientea, izapide-tzen jarrai dezan.
3. Nazio Idazkaritza izapidegilearen proposamenarekin ados badago, espedientea artxibatzeke aginduko du, espedientea hasteko eskatu duen Alderdiko organoari entzun ondoren, hala badagokio, eta bere erabakia helaraziko dio interesdunari.

11

#### **25. artikulua. Epeen zenbaketa**

Ezarritako epe guztiak baliozkotzat joko dira, eta edozein jarduketa jakinarazi edo espedientea ebatzi eta hurrengo egun baliodunetik aurrera zenbatuko dira.

### **V. KAPITULUA. ESPEDIENTEA AMAITZEA**

#### **26. artikulua. Ebazpena**

1. Diziiplina-espedientea amaitzeko, Nazio Idazkaritzak erabaki edo ebazpen arrazoitua emango du, espedientearen funtsa diren egitateak eta zuzenbide-oinarriak aipatuz. Zigor guztiak gehiengo osoz onartuko dira.
2. Ebazpenean, paragrafo banandu eta zenbakituetan jasoko dira egitezko aurrekariak, frogatutzat jotzen diren egitateak, egindako frogen emaitzak eta espedientea eragin duten egitateekin lotutako sortzaileak.

Frogatutako egitateak ezin izango dira inolaz ere izan kargu-orrian idatzitakoez bestelakoak.

3. Zuzenbide-oinarriak paragrafo banandu eta zenbakituetan jasoko dira, honako hau adieraziz: espedientearen xede diren sortzaileen jokabideari aplikagarri zaizkion manuak, frogatutako egitateetan izan duten partaidetza-maila, eta dagokien zigorra, behar bezala neurtua eta mailakatua kasu bakoitzaren inguruabarren arabera.
4. Azkenik, epaian edo erabakiaren edo ebazpenaren xedapen-atalean, espedientatuari ezarritako zigorra jasoko da. Espedientatutako sortzaileak bat baino gehiago badira, banan-banan jardungo da.
5. Era berean, aldez aurretik hartutako kautelazko neurriei dagokienez hartu beharreko erabakiak jasoko dira. Ondorio horietarako, afiliazioaren kautelazko etendurei eta Alderdiaren barruan edo haren izenean karguak betetzeko inhabilitazioei dagokienez, erabaki horiek hartu zirenetik igarotako denbora zenbatu beharko da. Hala badagokio, behin betiko zigorraren iraupenetik kendu beharko da denbora-tarte hori.  
Kautelazko neurririk hartu ez bada, zigorraren data zigor hori ezartzeko erabakia edo ebazpena irmo bihurtzen denetik aurrera zenbatuko da.
6. Era berean, jar daitezkeen errekurtsioak eta horretarako epeak adieraziko dira.
7. Zigortuak errekurtsorik jartzen ez badu edo ezarritako epeak igaro ondoren jartzen badu, Nazio Idazkaritzaren erabakiak edo ebazpenak irmoak izango dira.
8. Afiliatu bati ezartzen zaizkion zigorrak Sorturen Antolakuntza arduradunari jakinaraziko zaizkio, Alderdiaren fitxategietan dagozkion idatzoharrak egin ditzan.

## VI. KAPITULUA. ERREKURTSOAK

### 27. artikulua

1. Nazio Idazkaritzak emandako ebazpenaren aurka espedientatuak gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango du Nazio Kontseiluaren aurrean. Errekurtsioa hamabost eguneko epean jarriko da, epe hori ebazpena jakinarazten zaion egunetik aurrera zenbatuta. Eta gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatziko da.
2. Nazio Kontseiluak emandako ebazpenen aurka babes-errekurtsioa jarri ahal izango da Berme Batzordearen aurrean. Errekurtsioa hilabeteko epean jarriko da, epe hori ebazpena jakinarazten den egunetik aurrera zenbatuta. Eta gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatziko da.
3. Berme Batzordearen erabakiaren aurka ezin izango da inolako errekurtsorik jarri. Horretarako eskumena duten epaitegi eta auzitegietan soilik aurkaratu ahal izango da.
4. Errekurtsioak jartzeak ezarritako zigorraren betearazpena etengo du.

### 28. artikulua

1. Gora jotzeko errekurtsioa Nazio Idazkaritzaren aurrean jarri ahal izango da, Nazio Kontseiluari helaraz diezaion, edo Nazio Kontseiluaren beraren aurrean, dela pertsonalki, dela posta ziurtatuaren bidez (posta-bulegoan noiz aurkeztu den

adierazita), dela bide telematikoz [partehartu@sortu.eus](mailto:partehartu@sortu.eus) helbidearen bidez. Errekurtsoa Nazio Idazkaritzan aurkezten bada, hark Nazio Kontseiluari bidali beharko dio, dagokion espedientearekin batera, hiru eguneko epean.

2. Gora jotzeko errekurtsioan, izapidegileak ukatutako frogak egiteko eskatu ahal izango da, Kode honen 22.4 artikuluan adierazitako eran. Froga horiek egitea erabakitzen bada, emaitza errekurtsogileari erakutsiko zaio, gehienez ere hamar eguneko epean alegazioak egin ditzan.
3. Berme Batzordea iristen zaizkion errekurtsioak ebazteko bilduko da, eta bertaraututako kideen gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak, kanporatze-zigorra ezartzen denean izan ezik; kasu horietan, Batzordeko kideen gehiengo osoaren botoa beharko da.

## VII. KAPITULUA. DIZIPLINA-PROZEDURAREN IRAUPENA

### 29. artikulua

Diziplina-espedienteak izapidetzeko epea ezin izango da hiru hilabetetik gorakoa izan, espedientea abiatzen denetik zenbatzen hasita. Hala ere, salbuespenezko inguruabarrak direla eta, hilabeteko luzapenak egitea erabaki ahal izango da, izapidegilearen ebazpen arrazoituaren bidez.

Epe horiek igarota esanbidezko erabakirik edo ebazpenik ez badago, ondorio bakarria izango da Kode honen 9.2 artikuluan aurreikusitako preskripzioa ez etetea.

Ondorio horietarako, abuztua hilabete baliogabetzat hartuko da.

E

## VIII. KAPITULUA. DIZIPLINA-PROZEDURA ETETEA ETA ARTXIBATZEA

### 30. artikulua. Baja eskatzeagatik.

1. Diziplina-espediente bat hasi ondoren espedientatuak Alderdian baja emateko eskatzen badu, izapidegileak izapidetzea eten, espedientea artxibatu, eta horren berri jakinaraziko dio Nazio Idazkaritzari, Alderdiaren fitxategietan dagokion idatzoharra egin dezan.
2. Horrelaxe jokatu da espedienteak errekurtsio-fasean daudenean ere.

### 31. artikulua. Indarkeria matxistako kasuak.

1., 2. edo 3. mailako eraso baten ondorioz Indarkeria Matxista Kasuak Kudeatzeko Barne Protokoloa aplikatzen den kasuetan, protokolo horretan jasotako konpromisoak (kautelazko neurriak barne) eta prozedurak onartu eta betetzen badira, diziplina-espedientearen izapidetzea geldiarazi egingo da, eta, protokoloaren aplikazioak arrakasta izanez gero, espedientea behin betiko artxibatuko da.

## **IX. KAPITULUA. AUZI PENALEKIKO KONKURRENTZIA**

### **32. artikulua**

Diziplina-espedientea artxibatu egingo da eta kautelazko neurri guztiak baliogabetuta geratuko dira egitate berberengatik hasitako auzi penal batean artxibatzea erabakitzen duen ebazpen judiziala ematen denetik, edo espedientatua ikerketa judizialetik kanpo geratzen denetik, edo absoluzio-epaia ematen denetik. Erabaki judizial guztiek irmoak izan beharko dute.

## **X. KAPITULUA. KAUTELAZKO NEURRIAK**

### **33. artikulua**

Kautelazko neurritzat jotzen da espedientatuaren afiliazioa behin-behinean etetea. Nazio Idazkaritzak hartuko du kautelazko neurri hori, ofizioz, diziplina-espedientearen izapidegileak eskatuta edo espedientea abiarazi duen organoak eskatuta, eta arrazoitutako erabaki bidez.

### **34. artikulua. Afiliazioaren etendura**

1. Afiliazioaren kautelazko etendura honako arau hauen arabera egingo da:
  - a. Bidezkoa izango da sortzaileak Kode honen 4. eta 5. artikuluetan jasotako arau-hauste larri edo oso larriren bat egiten duen kasuetan.

Halaber, bidezkoa izango da sortzailea Indarkeria Matxista Kasuak Kudeatzeko Barne Protokoloa aplikatuz 2. edo 3. mailako prozedura bati lotuta dagoen kasuetan.

- b. Nazio Idazkaritzak automatikoki hartuko du neurri hori honako kasu haue-  
tan:
      - Sortzailea ikertua denean ustelkeriarekin edo indarkeria matxistarekin lotutako delitu batengatik hasitako zigor-arloko prozesu batean.
      - Sortzailea Indarkeria Matxista Kasuak Kudeatzeko Barne Protokoloa apli-  
katuz 4. mailako prozedura bati lotuta dagoenean.
    - c. Neurri horren ondorioz, espedientatuak kargu publikoren bat edo Alderdia-  
ren barruan ardura-karguren bat badu, kargu horri dagozkion eginkizunak  
kendu egingo zaizkio.

### **35. artikulua. Neurriak hartzea**

1. Kautelazko neurriak diziplina-espedientea hasi aurretik edo espedientea izapide-  
tzen den bitartean hartu ahal izango dira.  
Hartzen diren kautelazko neurriek ez dute diziplina-espedientearen emaitza  
aurrez epaituko, eta prozeduraren edozein egoeratan aldatu edo baliogabetu ahal  
izango dira.

2. Kautelazko neurria hartzeko erabakiaren aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango da Nazio Kontseiluaren aurrean. Errekurtsua hamar eguneko epean jarriko da, epe hori neurria jakinarazten den egunetik aurrera zenbatuta. Eta gehienez ere hilabeteko epean ebatziko da.

Errekurtsua jartzeak ez du etete-ondoriorik izango.

Nazio Kontseiluaren erabakiaren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.

## **XI. KAPITULUA. DIZIPLINA-ESPEDIENTEEN ARLOKO KASU BEREZIAK**

### **36. artikulua. Ustelkeriari eta indarkeria matxistari lotutako delituak.**

Sortzaile batek ustelkeria-delituren bat egiten badu kargu publiko edo ordezkaritza-kargu batean aritzean, edo haien izaeragatik eta inguruabarrengatik Alderdiaren Estatutuek eta Kode Etikoak ezartzen dituzten betebeharrak etikoekin bateraezintzat jotzen diren jokabideak baditu, edo indarkeria matxista delituren bat egiten badu, eta instrukzio judizial batean ikertu gisa deklaratzera deitu dutela jakiten bada, dizi-plina-espedientea irekiko da gertakari horiexengatik, honako berezitasun hauekin:

- a. Afiliazioa kautelaz eteteko neurria automatikoki hartuko da.
- b. Prozedura judizialari amaiera ematen dion epai irmoa edo, hala badagokio, artxibatze-autoa ematen denean ebatziko da dizi-plina-espedientea.
- c. Dizi-plina-espedientea artxibatzea aginduko da absoluzio-epai irmoa edo behin betiko artxibatze-autoa ematen den unean edo espedientatua ikerketa judizialetik kanpo geratzen den unean. Kautelazko neurriak hartu badira, espedientea artxibatu aurretik baliogabetu egingo dira.
- d. Afiliatua behin betiko kanporatuta geratuko da kondena-epaia irmo bihurtzen den unetik aurrera.

Hala ere, indarkeria matxista delituen kasuan, Barne Protokoloaren 2. edo 3. mailako prozeduren aplikazioaren emaitza ona izan bada, ondorio hori salbuetsi egingo da.

## **Xedapen iragankorra**

Kode hau indarrean jarri aurretik hasitako diziiplina-espedienteak izapidetzen jarraituko dira, Sorturen eratze-estatutuen 11. artikuluan eta 2017ko urtarrilaren 21ean egindako II. Kongresuan onartutako Estatutuen 11. artikuluan jasotako araubidearen arabera.

## **Xedapen indargabetzailea**

Indargabetuta geratzen da Sorturen eratze-estatutuen 11. artikuluan eta 2017ko urtarrilaren 21ean egindako II. Kongresuan onartutako Estatutuen 11. artikuluan jasotako diziiplina-araubidea.

## **Azken xedapena**

Kode hau 2024ko ekainaren 22an egindako Sorturen VII. Nazio Konferentzian onartu eta hurrengo egunean jarri da indarrean.